

Familia eta boterea XVIII. mendeko Bizkaian: Enkarerrietako La Cuadratarrak

(Family and power in 18th century Biskaia:
The *La Cuadra* family of the Encartaciones area)

Martínez Rueda, Fernando
Euskal Herriko Unibertsitatea
Filologia eta Geografia-Historia Fakultatea
Paseo de la Universidad, 5
01006 Vitoria-Gasteiz

BIBLID [1136-6834 (1999), 29; 91-106]

La Cuadra etxearen kasuak komunitate tradizionalak boterea kontrolatzeko familia estrategien garrantzia erakusten du. La Cuadratarrek Mendebaldeko Bizkaian zuten beren jatorria eta Enkarerrietako esparru politikoan eragin nabaria izan zuten XVIII. mendean. Lantxo honetan La Cuadratarren estrategiak aztertzen ditugu, jokabide horrek handikien estrategia kolektiboak isladatzen baititu.

Giltz-Hitzak: Gizarte historia. Euskal Herria. XVIII. mendea. Tokiko boterea. Familia estrategiak.

La casa la Cuadra es un ejemplo que muestra la importancia de las estrategias familiares en el control del poder de las comunidades tradicionales. Se trata de una poderosa familia originaria de la Bizkaia Occidental, que ejerció un destacado protagonismo en el marco político comarcal durante el siglo XVIII. En este trabajo analizamos cuáles fueron las estrategias que permitieron a los La Cuadra tal control del poder y que muestran cuáles eran las estrategias colectivas del grupo dominante.

Palabras Clave: Historia social. País Vasco. Siglo XVIII. Poder local. Estrategias familiares.

La maison La Cuadra est un exemple de l'importance des stratégies familiales pour le contrôle du pouvoir dans les communautés traditionnelles. Il s'agit d'une famille puissante, originnaire de la vallée de Somorrostro dans la Biscaye Occidentale, qui exerça son pouvoir dans le cadre politique régional durant le XVIIIème siècle. Nous analysons dans cet article les stratégies qui permirent aux La Cuadra de détenir un tel pouvoir et qui dévoilent les stratégies collectives du groupe dominant.

Mots Clés: Histoire social. Pays Basque. XVIIIème siècle. Pouvoir local. Stratégies familiales.

1. SARRERA¹

Historiagirolek familiaren azterketara alor desberdinetatik abiatu izan gara. Bai demografiaren historia, bai ekonomi historia, bai mentalitate- historiarako familia aztergai nagusietako bat bihurtu da iraganeko gizartearen logika eta funtzionamendua ulertu eta azaldu ahal izateko. Hortaz, garai batean soziologia edo antropologiaren ikuspuntutik soilik arakatu ohi zen gai honek historiagileon arreta ere bereganatu du.

Erregimen Zaharreko euskal komunitateak ikertzen baditugu, berehala familia eta oinetxearen garrantziaz ohartuko gara². Gizarte hartan *etxea* zen gizarte antolamenduaren funtsezko zelula. Bestela esanda, *etxea* gizartearen egituratzaile nagusia zen. Produktio unitatea ezezik, nolabaiteko izaki moral bat ere bazen, gizabanakoaren itzaropenak, jarrerak, jokabideak eta estrategiak baldintzatzen zituen izaki morala, alegia. Horretaz gain, *etxea* zen zerga sistemaren unitatea, *etxeak* zituen eskubide batzuk –zilegibasoaren erabilpena, jazarleku eta hilobiak parrokian...– baita komunitatearekiko betebeharrak batzuk ere –auzolanak. Azken finean, gizarte haren balore nagusia oinetxearen jarraipena eta aurrerapidea zen. Ez da harritzekoa, beraz, horrela egituratuta zegoen gizarte batean gizabanakoak oinetxearen menpe izatea³.

Antolakuntza politikoari dagokionez ere *etxea* zen oinarrizko zelula. Esate baterako, Bizkaiko elizateetan ordezkapen politikoaren sistema baserrian oinarritzen zen. Horregatik, nekazari komunitatean, eskubide politikoak *etxe*kojaunak zituen bakarrik, eta ez beste inork; hau da familia buruak soilik. Berari bakarrik zegokion herri batzarretan parte hartzeko eskubidea eta *etxe*kojauna soilik izan zitekeen hautatua herriaren arduradun politiko. Ondorioz ezkondua izatea edota *etxe*aren jabea izatea ezinbesteko baldintzak ziren eskubide politikoak edukitzeko. Zelanbait udalerrriaren ardura politikoak *etxe*aren eskubidetzat jotzen ziren eta ez gizabanakoaren eskubidetzat⁴. Hona hemen horri buruz Durango Merinaldeko Garay herriko auzokideek ziotena XIX. mendearen hasieran:

“El oficio de Fiel desde los tiempos que la memoria no alcanza ha sido en esta Anteiglesia [Garay], lo mismo que tambien en otras de Vizcaya, una carga que ha pesado mas sobre las casas, que sobre las personas...”⁵.

1. Neure eskerrona Koldo Jule Garai lagunari, bere aholku eta laguntzagatik. Hala ere, lantxo honen akatsak egi-leari bakarrik dagozkio, ez besteri.

2. Familia kontzeptuak bi adiera ditu: batetik, *etxe* berean bizi direnak, *etxe*koak alegia; bestetik, senidetasun loturak dituztenak, nahiz eta *etxe* berean ez bizi. Artikuluan biak hartuko ditugu kontutan, ahaidetasunaren garrantzia azpimarratuz. *Etxe* edo oinetxe kontzeptua, berriz, gizarte tradizionalen ulertzen zen bezala erabiliko dugu. Garai hartan *etxea* zen familiak erabiltzen zuen kontzeptua garaikideen aurrean identifikatzeko eta ekintza politiko, ekonomiko eta sozialei aurre egiteko, hau da, familia baten eragin eta prestigioa biltzen zituen kontzeptua. Vid. FERNANDEZ, R.: “La burguesía barcelonesa en el siglo XVIII: la familia Gloria”, in TEDDE, P. (ed.): *La economía española al final del Antiguo Régimen*, II. alea, Madrid, 1982, 8-12 orr.

3. Erregimen Zaharreko egitura sozial eta politikoan *etxe* eta *familia* kontzeptuen garrantziaz vid. BRUNNER, O.: “La Casa grande y la económica de la Vieja Europa”, *Nuevos caminos de la historia social y constitucional*, Buenos Aires, 1976; CHACON JIMENEZ, F. eta HERNANDEZ FRANCO, J.: *Poder, familia y consanguinidad en la España del Antiguo Régimen*, Barcelona, 1992; STONE, L.: *The family, sex and marriage in England 1500-1850*, Londres, 1977, 29-90 orr.; ATIENZA, I.: “Pater familias, Señor y Patrón: económica, clientelismo y patronato en el Antiguo Régimen”, in PASTOR, R. (ed.): *Relaciones de poder, de producción y parentesco en la Edad Media y Moderna*, Madrid, 1990, 411-457 orr.; VIEJO, J.: “Familia y conflictividad personal en Guipúzcoa. Hernani, 1700-1750”, *Estudios de Historia Social*, 34-35 zkia, 1985; URRUTIKOETXEA, J.: “En una mesa y compañía”. *Casero y familia campesina en la crisis de la “sociedad tradicional”*. Irún, 1766-1845, San Sebastián, 1992, 17-25 eta 73-82 orr.

4. MARTINEZ RUEDA, F.: *Los poderes locales en Bizkaia: del Antiguo Régimen a la Revolución Liberal (1700-1853)*, Bilbao, 1994, 55-67 orr.

5. Archivo General del Señorío de Vizcaya (AGSV), Elecciones, Reg. 25, leg. 1.

Etxea edo familia, bada, ezinbesteko aztergai dugu industriaurreko komunitateetako agintaritza ikertzeko orduan. *Etxea* kontzeptuak familia baten ahalmen ekonomiko, sozial eta politikoa biltzen zuen. Are gehiago, etxekoen eragin politikoa komunitatean sortetxeak zuen estatusaren araberakoa zen, eta etxekojaunari zegokion ahalmen hori erabiltzea. Hori dela eta, boterea eskuratzeko estrategiak familiaren inguruan eta familiaz baliaturik eratzen ziren. Batetik, estrategia horien helburua oinetxearen ondasun material eta sinbolikoa segurtatu, iraunarazi eta handitzera bideratzen zen. Azken finean, komunitatean etxeak zuen boterea faktore horietatik zetorren. Bestetik, familia-bideak erabiltzen ziren oinetxe baten boterea eskuratu eta handitzeko. Adibidez, ezkontzaren bitartez, jauntxoek talde menperatzailearen beste elementuekin harremanetan jartzen ziren eta, horrela, familia elkarketak politika mailako harreman bihurtzen ziren. Familia-bideak erabiliz, jauntxoek aberastasun, ohore eta boterea metatzen zituzten, etxearen oinordekoei helarazteko asmoz.

Lerro hauen bitartez talde menperatzailearen botere estrategia horiek nola gauzatzen ziren azaldu nahi izango genuke. Horretarako adibide konkretu baten azterketa metodo egokia delakoan gaude. Zenbait *case studies*ek erakutsi dutenez, leinu baten azterketak garai bateko errealtate sozialaren ezagupena ahalbideratzen du. Are gehiago, kasu konkretu baten ikerketak ikuspegi globala ilustratu ezezik, ikuspegi orokorretik ikusten ez diren elementuak erakutsi ere egiten dizkigu. Gainera, horrela uler dezakegu tokian tokiko agintaritza ez modu anonimo batera, protagonistengan gorpuztua baiziki.

La Quadra etxea da artikulu honetan aztertuko dugun adibidea. Mendebal Bizkaiko familia boteretsua dugu berau. Somorrostro haranean dute beren jatorria, Muskiz kontzejuan hain zuzen. La Quadratarrek XVIII. mendean zehar Enkarterrietan eragin politiko nabaria eduki zuten. Familiaburu guztiek lortu zuten Enkarterrietako sindiko kargua. Eskualde horretako egitura politikoa kargu gorena sindiko nagusia zen, bai aginte handia zuelako, bai prestigio handia eskuratzen zutelako sindikoek. Eta horregatik, enkarterritarrek esaten zuten, kargu hori eskuratzeko handikia izatea ezinbestekoa zen⁶.

La Quadratarrek: Enkarterrietako sindikoak⁷

HAUTATUA	NON HAUTATUA	URTEAK
Simón de La Quadra Medrano	Lau Kontzejuak	1678-80
Agustín de La Quadra Llarena	Lau Kontzejuak	1698-1700
Simón Julián de La Quadra Mollinedo	Lau Kontzejuak	1738-40
Simón Julián Mollinedo La Quadra	Artzentales	1754-56
Simón Julián de La Quadra Mollinedo	Lau Kontzejuak	1758-60
Pedro Simón de La Quadra Otañez	Lau Kontzejuak	1778-80

Aurreko koadroan ikus daitekeenez, La Quadratarrek familiaren bitartez agintaritzan lortutako jarraipenaren adibide argia dugu. Hala ere, datozen lerro hauetan iraupena baino gehiago, La Quadratarrek erabili zituzten estrategiak aztertzea interesatzen zaigu, jokabide horrek handikien estrategia kolektiboak isladatzen baititu.

6. Archivo Municipal de Arcentales (AMA), C. 462, leg. 1, 1-3 orr., 1794. AHUD, Hidalguías, C. 1, 1. zkia., 1756.

7. Bizkaiko Foru Artxiboa (BFA), Avellaneda, L. 9-18.

2. LEHEN URRATSA: MAIORAZKOA

Jakina denez, maiorazko erakundea zen beren oinetxeak iraunarazteko handiek erabiltzen zuten lehen baliapidea. 1705.ean Simón de La Quadra y Medranok sortu zuen maiorazkoa. Simón de La Quadra 1639. urtean jaio zen Muskizen. Hogeita hamazazpi urte zituela María de Llarena Sobradorekin ezkondu zen. Ezkontza honen bitartez Muskizeko familia aberatsenetako bi uztartzen ziren. Ezkontza-kontratuak aipatzen zuenez, emazteak 4.000 dukateko dotea jaso zuen. Bere aldetik, Simón de La Quadrak 15.000 dukat ekarri zuen ezkontzara⁸. Antza denez, diru horretaz baliatuta La Quadrak baserriak, lurak eta burdinolak erosteari ekin zion. María de Llarena haurdun eta hilzorian zegoela, hemeretzi seme-alaba erditu ondoren, maiorazkoa sortzea erabaki zuten senar-emazteek. Maiorazkoari atxekiriko ondasunak honako hauek ziren: Puente de Musqueseko dorretxea, bizileku zutena; bederatzi sorotan sakabanaturiko sei hektarea, gehienak dorretxearen inguruan kokatuak eta arto, gari eta mahastia lantzeko; bi baserri; Villoch deituriko burdinola, La Quadraren aginduz eraikia; El Pobaleko burdinola, Pedro de Ampuero jaunari erositako burdinolon baso eta arboladi ugari. Beraz, La Quadra nekazal handikia zen, burdingintzari batez ere lotua. Simon jaunak berak esaten zuenez, burdinolak ziren bere ondasun emankorrenak. Hau azpimarratu beharrekoa da zeren eta olajabeak agintaritza handiko gizonak baitziren Enkarterrietan, nekazariak beraien menpe zeudelarik:

“En todas las Encartaciones los ferrones son poderosos por depender de ellos los más de los vecinos.”⁹

Maiorazkoaren bidez, La Quadrak metatu zuen ondarearen jarraipena bermatzen zen. Seme zaharrenak, Agustin de La Quadra Llarenak, heredatuko zituen ondasun guztiak, banaezinak ziren eta. Merkatal zirkuitotik kanpo utzita, La Quadratarren oinarri ekonomikoak iraun egingo zuen. Baina maiorazkoa sortzea ez zen operazio ekonomikoa soilik. Helburua sakonagoa zen: oinetxearen eta La Quadratarrek herrian zuten gizarte-mailaren iraupena. Adibidez, Simón jaunak ezarritako baldintzen arabera, maiorazkoaren oinordekoak La Quadra sortetxean bizi beharra zeukan, baita bere abizena eta armarriak erabili beharra ere:

“Fundo este mayorazgo con carga y condición que los sucesores tengan el sobrenombre y apellido de La Quadra sin otro apellido antes de él y aunque hayan tenido otro apellido lo dejen y tomen este (...); quiero y es mi voluntad que los dichos sucesores en el hayan de vivir y vivan en este dicho concejo de San Julián de Musques (...) y si por su mayor conveniencia quisiere vivir en otros parajes fuera de dicho concejo y territorio y si dentro de diez años no volviere a vivir a este dicho conejo y cuidar de dichos bienes desde ahora para entonces lo excluyo y aparto de ellos...”¹⁰

Aurreko testuak erakusten duenez, maiorazkoaren bitartez ondare materiala ezezik, oinetxearen ondare sinbolikoa ere bermatzen zen. Maiorazkoaren oinordekoak leinuaren hilotza bereziak, armak, armarriak eta bestelako ohore-bereizgarriak eskuratuko zituen. Nolabait oinetxearen nagusigo soziala ere heredatzen zen maiorazkoarekin batera, baita oinetxe horrek herrian zuen agintaritza eta eragin politikoa ere. Azken finean, eta hauxe da azpimarratu nahi duguna, maiorazkoak funtzio politikoa ere bazuen. Esate baterako, Simón Julián de La Quadra Mollinedok, fundatzailearen iloba eta oinetxearen oinordekoa alegia, Artzentales

8. BFA, Villarías, L. 1, 39. zkia.; L. 96, 13. zkia.

9. Archivo de la Real Chancillería de Valladolid (ARChV), Sala de Vizcaya, leg. 1.099, 8. zkia.

10. BFA, Villarías, L. 97, 1. zkia., 1705.

haraneko Mollinedo maiorazkoa, herri horretako aberatsena, jarauntsi zuen XVIII. mendearen erdialdean. Ondorioz, maiorazko horren baserriak, burdinolak eta lurak bereganatu zituen. Binkulo horrekin batera La Quadratarrek Mollinedo oinetxeak herrian zuen nagusigo eta lehenetasun politikoa ere eskuratu zuten, nahiz eta bertakoak ez izan. Hori dela eta, udalerri horrek Simón Julián de La Quadra Mollinedo hautatu zuen Enkarterrietako sindiko 1754. urtean, Simón Julián de Mollinedo izenarekin, Artzentalesekoa izan barik eta bertan bizi barik.

Simón de La Quadra eta María de Llerena senar-emazteek bederatzi seme eta hamar alaba izan zituzten. 1705.ean, familiaburuak testamentua egin zuenean, hamaikak baino ez zirauten bizirik, lau gizonezko eta zazpi emakumezko. Seme zaharrena, Agustín, izendatu zuten maiorazkoaren oinordeko. Besteak baztertuta geratu ziren. Oinetxearen iraupenak eta aurrerapideak ezinezko egiten zuen ondasun material eta simbolikoen banaketarik egitea. Ondorioz, beste irtenbideren bat bilatu behar zen beste seme-alabentzat. Hala ere, oinordeko ez zirenek lagunduko zioten familiaburuari oinetxea handitzen eta hobetzen. Leinuaren estrategiak gizakiak oinetxearen menpe jartzen zituen, familiarren onerako. Horrela agintzen zuen Simón de La Quadra maiorazkoaren fundatzaileak bere testamentuan:

“... estoy muy satisfecho del proceder de dichos mis hijos y en particular de los mayores D. Agustín, D. Nicolás y D. Sebastián en quienes he conocido ser su voluntad el que se cumpla la de su madre y mía de que queden y esten siempre en una cabeza indivisibles e inajenables los bienes que van vinculados y que para que estos se conserven integros ayudaran cada uno por su parte...”¹¹

3. EZKONTZA-POLITIKA

Talde agintaria osatzen zuten familien strategiaren beste giltzarrietako bat ezkontza-politika zen. Ezkontzaren bidez jarraipena eman nahi izaten zitzaion familiari, oinordetzan jasotako ondasunak ugaritu eta leinu boteretsuen arteko loturak areagotu. Handikiek, ezkontza-politikaz baliatuta, talde agintariko beste oinetxe batzuekiko itun ekonomiko eta politikoak bilatzen zituzten. Senitartekotasunak, alde batetik, elkarren arteko laguntza ekonomikoa zekarren, eta bestetik, elkarkidetuako familiei gizartean gora egiteko aukera ematen zien. Hitz batean esanda, talde agintariaren estrategietan baliapide ekonomiko eta politiko ezin hobea zen ezkontza¹². Ezkontzarako egiten ziren kontratueta ere aipatzen zen ezkontza horien helburua. Hona hemen María Francisca Paula de La Quadra Montiano eta Mariano Ordoñez de Barraicua lotu zituen kontratuaren arrazoia:

“... está tratado y ajustado que para mayor servicio de ambas majestades divina y humana, aumento de la religión católica y de tan ilustres linajes se hayan de casar...”¹³

Aipaturiko helburuok lortu ahal izateko, ezkontzak pareko gizarte maila zeukaten familien artekoa behar zuen izan. Handikien arteko ezkontza-endogamia ezinbesteko baldintza zen oinetxearen aurrerapidea lortzeko. Ezkontza-hitzarmenetan esaten zenez, talde agintarikoek “con persona igual a sus calidades” ezkondu behar zuten. Hori dela eta, ezkontza ez zen

11. BFA, Villarías, L. 97, 1. zkia.

12. STONE, L., op. cit., 42-89 orr.; ATIENZA, I.: “Nupcialidad y familia aristocrática en la España moderna: estrategia matrimonial, poder y pacto endogámico”, in *I Congreso Hispano Luso Italiá de demografía histórica*, Barcelona, 1987, 501-510 orr.; FERNANDEZ, R., op. cit., 20-22 orr.; RODRIGUEZ SANCHEZ, A.: “El poder y la familia. Formas de control y consanguinidad en la Extremadura de los tiempos modernos”, in CHACON, F. eta HERNANDEZ, J.: *Poder, familia y consanguinidad en la España del Antiguo Régimen*, Barcelona, 1992, 15-34 orr.

13. BFA, Villarías, L. 19, 177. zkia., 1779.

egiten ezkongaien erabakiz. Familiaren erabaki kolektiboan zen, familiaburuak zuelarik azken hitza, behin bi familien arteko negoziaketak egin ondoren. Holakoetan ezkontideen senide nabarmenenek hartzen zuten parte, Ramona Gregoria de La Quadra Mollinedo eta Francisco de Araunaren hitzarmenak erakusten duenez:

“Dijeron que para mayor servicio de las Magestades Divina y Humana, lustre y esplendor de una y otra familia, habían conferido y ajustado el que dicho Sr. Capitán José Francisco de Arauna y Doña Ramona Gregoria de La Quadra hayan de casarse, con comunicación y beneplácito del Excmo. Sr. Sebastián de La Quadra, Marqués de Villarias, Consejero de Estado y primer Secretario del Despacho Universal de Estado, Gracia y Justicia, y del Sr. D. Nicolás de La Quadra Arcediano de Briviesca, Dignidad de la Metropolitana de Burgos, hermanos enteros legítimos de dicho Sr. D. Agustín, padre de dicha Señora Doña Ramona Gregoria...”¹⁴

Azter dezagun zehatzago, bada, La Quadratarren ezkontza-politika. Arestian aipatu dugunez, maiorarazkoaren fundatzailea, Simón de La Quadra Medrano, María Llarena Salcedorekin ezkondu zen. Beren seme-alabak Enkarerrietako eliteko familiakoekin ezkondu ziren. La Quadratarrak aberastu ahala ezkontza-merkatuaren esparru geografikoa zabaldu zuten. Estatus berekoekin ezkondu beharrak ezkontidea urrunago bilatzera behartu zituen La Quadratarrak. Eta horrela Bilboko familia aberatsekoekin –Enderica, Montiano edo Barraicua–, Bizkaiko handikiekin –Elorrioko Araunatarrak– edo Gaztelako nobleekin –esate baterako, Gaspar de Miranda Bernedo– elkartu ziren ezkontzen bidez.

La Quadratarren ezkontza-politika

SENARRA	EMAZTEA	URTEA
S. de La Quadra Medrano (Lau Kontzejuak)	M ^a Llarena Sobrado (Lau Kontzejuak)	1676
J. A. Las Casas Llarena (Sopuerta)	M ^a de La Quadra Llarena (Lau Kontzejuak)	1700
A. Mollinedo Rado (Mena harana)	J. Quadra Llarena (Lau Kontzejuak)	1707
A. Bedia Villanueva (Balmaseda)	I. Quadra Llarena (Lau Kontzejuak)	1720
S. Llano (Muskiz)	F. Quadra Llarena (Lau Kontzejuak)	
A. de La Quadra Llarena (Lau Kontzejuak)	A. M. Mollinedo Santa Cruz (Artzentales)	1709
J. F. Arauna Mallea (Elorrio)	R. G. Quadra Mollinedo (Lau Kontzejuak)	1745
M. A. Alvarado Velasco (Cantabria)	M. A. Quadra Mollinedo (Lau Kontzejuak)	1739
S. J. de la Quadra Mollinedo (Lau Kontzejuak)	Josefa Otañez Orcasitas (Otañez)	1732
S. J. de la Quadra Mollinedo (Lau Kontzejuak)	N. A. Enderica Mazarredo (Bilbo)	
F. A. Salazar (Portugalete)	R. Quadra Otañez (Lau Kontzejuak)	1752
P. S. Quadra Otañez (Lau Kontzejuak)	N. Montiano Mazarredo (Bilbo)	1758
P. S. Quadra Otañez (Lau Kontzejuak)	F. J. Salazar y Salamanca Mújica (Sop.)	1768
P. S. Quadra Otañez (Lau Kontzejuak)	M. Saravia (Villarcayo)	1795
M. Ordoñez Barraicua (Bilbo)	M ^a F. P. Quadra Montiano (Lau Kontzejuak)	1779
G. Miranda Bernedo (Calahorra)	M. R. Quadra Montiano (Lau Kontzejuak)	1787

Aurreko zerrendak erakusten duenez, Enkarerrietako oligarkiaren familiarik garrantzitsuenak elkarlotuta zeuden ezkontza-sare handi baten bidez. Ezkontza-politika erabiliz La Quadratarrak Somorrostroko Llarena oinetxearekin elkarkidetu ziren. Eta Llarenatarrek eskualdeko goi-agintari nabarmenetakoak ziren. Adibidez, Inocencio Antonio Llarena Salcedo Enkarerrietako sindiko izan zen 1718-20 eta 1736-38 urteetan. Horren arbasoek ere

14. BFA, Villarias, L. 3, 156. zkia., 1745.

eskualdeko kargu poliko gorenak eskuratu zituzten. 1688-90 urteetan Fernando de Larena Sobrado, Simón de Quadra Medranoren koinatua alegia, sindiko izendatu zuten, eta bere anaia Juan, legelari zena, Enkarterrietako *consultor* (lege aholkulari) izendatu zuten 1696 eta 1716.ean. Etenbakoa izan zen Llarenatarren protagonismo politikoa XVIII. mendearen lehenengo erdian. Hainbatetan agertzen dira familia horretakoak Enkarterrien ordezkari lanak egiten 1720 eta 1750 bitartean, hau da, Bizkaiko Jaurerri eta Enkarterrien arteko harremanak okertu zirenean¹⁵. Llarenatarrek politikan izandako eraginean zerikusi handia izan zuen La Quadratarrekin egindako uztarketak, bion arteko elkarkidetzat politikoa osoa zelararik. Horren lekuko dugu Fernando de Llarenak Agustín de La Quadraren ordezkari egin zuela Enkarterrietako sindiko lanetan¹⁶.

Beste adibide interesgarri bat La Quadra eta Las Casas familien arteko hitzarmena da. Azken hau Sopuerta kontzejuko oinetxerik boteretsuena zen. Hori dela eta, familia horretakoak birritan izan ziren Enkarterrietako sindiko. Horrez gainera, 1717, 1722 eta 1726.ean Juan Antonio de Las Casas *Teniente de Corregidor* ordea izan zen. Bere maila ekonomikoari dagokionez, Las Casas Sopuertako jaberik aberatsena zen. Hiru maiorazko metatu ondoren, XVIII. mendearen azkenaldean Sopuertako hamabost baserriren jabe ziren familia horretakoak. Bestalde, Las Casastarrek Armadan eta administrazioan kargu garrantzitsuak eskuratu zituzten. Esate baterako, Simón de Las Casas Venezian enbaxadore izan zen eta Luis de Las Casas *Teniente General*¹⁷.

La Quadratarrek Mollinedotarrekin ere uztartu ziren ezkontzaren bidez. Familia horixe izan zen XVII. mendean zehar eta XVIII.aren hasieran Artzentaleseko politikan eraginik handiena izan zuena. 1697.ean Lucas de Mollinedo Enkarterrietako sindiko izendatu zuten eta 1714.ean, berriz, Andrés de Mollinedo. Erdi Arotik zetorkion oinetxeari nagusigo soziala eta ohorea. Hori dela eta Lucas de Mollinedo Santa Cruzek bere buruari "Señor y Pariente Mayor de las casas de sus apellidos" titulua ematen zion. Familia hori maiorazko batzuen jabe zen. Garrantzitsuena Mollinedokoa zen: dorretxea, bi errota, bi burdinola, bi baserri eta bere osagai sinbolikoak —"la sepultura y lápida que está en dicha iglesia de San Pedro de Mollinedo y la grada principal", orduko hitzetan esaten zenaren arabera. Maiorazko honi gehitu behar zaizkio Karrantzako dorretxe bat, sei baserri, bi errota eta hamarrenen zati bat. Beste alde batetik, familia horrek lotura garrantzitsuak zituen Enkarterrietatik kanpo, familiako batzuk Elizan lortutako karguak zirela eta. Adibidez, Manuel de Mollinedo Cuzko-ko apezpiku izan zen eta Andrés de Mollinedo Inkisizioaren Komisario hiri berean¹⁸.

Adibide hauekin bukatuz, Salazar y Salamanca familia aipa dezakegu. Manuel de Salazar y Salamanca eta izen bereko semea Enkarterrietako sindiko izan ziren 1710-12 eta 1750-52 bitartean. Bi burdinolaren jabe ziren, bata Galdameseko kontzejuan eta bestea Sopuertan. Ohi zen bezala, Enkarterrietako beste udalerrri batzuetako handikiekiko familia-loturak zituzten. Manuel de Salazar y Salamancaren osaba Francisco de Salamanca Aedo zen. Azken hau *Caballero de la Orden de Santiago* izateaz gain, Karrantzako Aedo eta Gordexolako Largacha maiorazkoen jabea zen, eta herriotan politikan parte hartze nabarmen-

15. Bizkaiko Jaurerri eta Enkarterrien arteko harremanen bilakaerari buruz vid. MARTINEZ RUEDA, F.: *Abellanedako Batzar nagusiak*, Bilbao, 1995, 75-130 eta 171-182 orr.

16. BFA, Villarías, L. 1; 21., 36. eta 39. zkiak.; L. 3, 138. zkia. BFA, Avellaneda, L. 9.

17. BFA, Villarías, L. 95, 102. zkia. AGSV, Fogueraciones, 1796.

18. BFA, Villarías, L. 1, 1. eta 2. zkiak.; L. 25, 2. zkia.; L. 30, 147. zkia.

na izan zuen¹⁹. Ikusten dugunez, ezkontzaren bidez oso itxia zen handikien arteko sarea lotzen zuen Enkarterrietako oligarkia.

La Quadratarrekiko familia-loturak zituzten Enkarterrietako sindikoak²⁰

HAUTATUA	NON HAUTATUA	URTEAK
Fernando Llarena Sobrado	Lau Kontzejuak	1688-90
Simón de La Quadra Medrano	Lau Kontzejuak	1678-80
Lucas Mollinedo Santa Cruz	Artzentaes	1696-98
Agustín de La Quadra Llarena	Lau Kontzejuak	1698-1700
Manuel Salazar y Salamanca	Sopuerta	1710-12
Andrés Mollinedo	Artzentaes	1714-16
Inocencio Ant. Llarena Salcedo	Lau Kontzejuak	1718-20
Manuel Antonio de Las Casas y La Quadra	Sopuerta	1730-32
Inocencio Ant. Llarena Salcedo	Hiru Kontzejuak	1736-38
Simón Julián de La Quadra Mollinedo	Lau Kontzejuak	1738-40
Manuel Salazar y Salamanca	Sopuerta	1750-52
Simón Julián Mollinedo La Quadra	Artzentaes	1754-56
Simón Julián de La Quadra Mollinedo	Lau Kontzejuak	1758-60
Cristobal de Las Casas	Sopuerta	1770-72
Pedro Simón de La Quadra Otañez	Lau Kontzejuak	1778-80

Beste alde batetik, talde agintariak aberastasunak, ohore-bereizgarriak eta boterea biltzeko erabiltzen zuen ezkontza. Ahal izanez gero, La Quadra etxearen oinordekoa maiorazko baten oinordekoarekin ezkontzen zen. Adibidez, 1709.ean Agustín de la Quadra Llarena Andrea Manuela de Mollinedorekin ezkondu zen, hau da, Mollinedo maiorazkoaren oinordekoarekin. Horrela La Quadratarrek maiorazko berri bat eskuratu zuten, eta horrekin batera Mollinedotarrek izandako boterea Artzentaleseko haranean. Berrogeita hamar urte geroago, aurrekoen iloba eta oinordekoa, Pedro Simón de La Quadra y Otañez, María Nicolasa Montiano Mazarredorekin ezkondu zen, Beitia-Oleaga maiorazkoaren oinordekoarekin hain zuzen. Ugari eta aberatsak ziren La Quadratarrek bereganatzen zuten maiorazko honen ondusunak: hiru etxe Bilbon, zazpi baserri eta dorretxe bat Loiu, Derio, Arrigorriaga, Begoña eta Abandoko elizateetan, 16.912 dukat zentsutan eta kaperautza baten patronatua²¹. Nahiz eta hiru aldiz ezkondu, Pedro Simón de La Quadra Otañezek ez zuen semerik izan. Horregatik, familiak metaturiko maiorazko guztiak bere alaba nagusiak, María Francisca Paulak, heredatu zituen. Eta berarentzat bere mailako senargai bat bilatu zuen familiaburuak. Ondorenez, 1779 María Francisca Paula Mariano Ordoñez de Barraicua ezkondu zen. Barraicua familia Bilbo aldeko handiki nagusienetakoa zen, senargaiak berak esaten zuenez:

“Dijo dicho Señor Don Mariano Ordoñez de Barraicua Asua Guecho Martiartu Ingles es dueño y poseedor y pariente mayor (como lo han sido tambien todos los señores sus autores) de las

19. Archivo Histórico de la Universidad de Deusto (AHUD), Notariales, C. 5, 1. zkia., 1724. MARTINEZ RUEDA, F.: “Comunidad y poder local: el valle de Gordejuela en el siglo XVIII”, *Eusko Ikaskuntza, Cuadernos de sección, Geografía-Historia*, 22, 1994, 147-170 orr.

20. BFA, Avellaneda, L. 9-18.

21. BFA, Villarías, L. 23, 466. zkia.

casas torres solares e infanzonas de sus apellidos y de los patronatos diviseros, honores y prerrogativas correspondientes y sus respectivos vínculos...”²²

Izan ere, Barraicua familia Getxo, Ingles, Martiartu, Asua eta Barraicua maiorazkoen jabea zen. Maiorazko hauen ondasunak Bilbon eta hiriaren inguruko elizateetan kokatzen ziren: sei etxe Bilbon, zazpi baserri Abandon, bi Begoñan eta beste baserri, dorretxe, errota eta patronatu batzuk Asua, Sondika, Loiu, Erandio, Berango eta Getxoko elizateetan²³. Ondorioz, XIX. mendearen hasieran La Quadra etxearen oinordekoa, Mariano Ordoñez de Barraicua y La Quadra, zortzi maiorazkoen jabe zen, XVIII. mendean zehar La Quadratarrek burututako ezkontza-politikari esker. Metaturiko ondasunak itzelezkokoak ziren eta 1806.ean urtero 100.000 erreale inguruko irabaziak ematen zituztela jotzen zen²⁴. Argi dago, bada, handikien ezkontza-politikaren garrantzia boterea, ohore-bereizgarriak eta aberastasuna biltzeko.

Ezkontza ulertzeko modu honek beste ondorio batzuk ere bazituen handikien jokabideetan. Ezkontza ondarea gehitzeko eta beste handikiekiko hitzarmenak egiteko baliapidea zenez, batzuetan behin baino gehiagotan ezkontzea erabakitzen zen. Horrela, Simón Julián de La Quadra Mollinedo bere lehenengo emaztea hil zenean, Nicolasa Enderica Mazarredorekin ezkondu zen. Eta horren semea, Pedro Simón, hiru aldiz ezkondu zen. Beste alde batetik, gizabanakoek onartu behar zituzten familiaburuek hitzartutako ezkontzok. Baina hau guztia, gizonezkoen kasuan, moral bikoitzaren bidez orekatzen zen. Hau da, normala zen gizonek ezkontzaz kanpoko harreman sexualak izatea eta sasikumeak izatea. Adibide bat aipatzearen, gogora dezagun Simón Julián de La Quadra Mollinedori buruz esaten zena: “vive en continuo amancebamiento, retirado de su mujer”²⁵. Ez da harrizkoa, bada, Simón Julián jaunak sasiko ugari izatea. Baina hori guztia normalizat hartzen zen eta ez zen izkututzen. Testamentuetan ere hartzen ziren kontutan seme-alabok, Nicolás de La Quadra Llarenak egin zuen bezala:

“Declara que su sobrino Don Simón Julián de La Quadra, Caballero de la Orden de Santiago y Prestamero Mayor de Vizcaya, tiene cuatro hijas bastardas o ilegítimas habidas en mozas solteras, hallándose casado en primer matrimonio, de cuyos nombres no hace memoria, y si que están en edad de tomar estado y para cuando llegue este caso manda a cada una de ellas por una vez por vía de dote quatrocientos ducados de vellón.”²⁶

4. ELIZA ETA ERRET-ADMINISTRAZIOA

Ikusi dugunez, maiorazko eta ezkontza-politikaren bitartez handikiek oinetxearen iraupea eta ospea bermatu nahi zuten, banaketa eta gainbehera galeraziz. Horregatik seme-alabetako bat izaten zen familiaren ondasun material eta sinbolikoen oinordeko bakarra. Ondorioz, oinordeko ez zirenentzat beste irtenbideren bat bilatu beharra zegoen.

Familiaren ondarearen banaezintasunak etxearen arteko ezberdintasun handiak sortzen zituen. Alabentzako irtenbidea hitzartutako ezkontza edo, familiak behar besteko doterik ematerik ez bazuen, komenturen batera joatea zen. Simón de La Quadrak eta María Llarenak

22. BFA, Villarías, L. 19, 177. zkia.

23. *Diccionario biográfico de los Diputados Generales, Alta Burocracia y Mayores Pudientes de Bizkaia (1800-1876)*, Bizkaiko Batzar Nagusiak, Bilbao, 1995, 369-375 orr.

24. BFA, Villarías, L. 33, 19. zkia.

25. AGSV, Encartaciones, Reg. 1, leg. 10, 1746.

26. BFA, Villarías, L. 97, 5. zkia., 1758.

zazpi alaba izan zituzten. Horietako bost ezkondu egin ziren Enkarterrietako handikiekin eta bakoitzak 2.200 dukateko dotea jaso zuen. Beste biak Portugaleteko Santa Clara komentura sartu ziren. Azken irtenbide hau merkeagoa zen familiarentzat, komentuan ezkontza dotea 1.400 dukatekoa baitzen²⁷. Hurrengo belaunaldiko bi alabek 5.000 dukateko ezkontzaria jaso zuten Elorrioko Arauna eta Cantabriako Alvaradorekin ezkontzeko. Hirugarren gizaldiko alabak, Rosalía de La Quadra Otañezek, 10.000 dukat ekarri zituen Franciso Antonio de Salazar y Muñatonesesikoko ezkontzara. Ikusten dugunez, alaba gehienentzat, dote on bati esker, ezkontza egoki bat negoziatzen zen. Ez zen horrela gertatzen oinordeko ez ziren semeekin, gehienetan ezkongabe geratzen zirelarik.

Oinordeko ez ziren gizonezkoentzat beste bide batzuk bilatzen ziren, irtenbide duina emateko eta, ahal izanez gero, familiaren ospea, indarra eta aberastasuna gehitzeko. Gehienetan, oinordeko ez zirenei Elizan edo estatuko administrazioan lekuren bat bilatzen ahalegintzen zen familia, talde legez eta familiaburuaren zuzendaritzapean. Botere-esparru horietan senideak edukitzeak familiaren estatusa hobetzen zuen. Arrakasta lortuz gero, senide horiek dirubideak, karguak eta ohore-bereizgarriak bideratuko zizkioten familiari. Beraz, seme bigarren hauek garrantzi handiko pertsonaiak izan zitezkeen oinetxearen aurrerapiderako. Sebastián de La Quadra Llarena da horren esenplu adierazgarria. Erret-administrazioan kargu garrantzitsuak lortu zituen, Estatuko eta Justiziako *secretario de despacho* izatera heldu zen. Goi-kargu horietatik bere familiaren gizarte eta politika-maila gora eramanez, bere senideek aitortzen zutenez:

[“Sebastián de La Quadra Llarena] es quien ha ilustrado y aumentado el honor de esta casa y conseguido las conveniencias y dignidades que ocupamos sus hermanos, primos, sobrinos y por cuyos méritos y servicios se digna su Magestad hacer merced de los patronatos, lanzas mareantes, Prebostad y Prestamería mayor de Vizcaya a dicho nuestro sobrino el expresado Don Simón Julián de La Quadra Mollinedo.”²⁸

Seme bigarren horiek eliza-karguetara bidaltzeak tokian tokiko beste botere esparru batean –herrietan oso garrantzitsua zen Elizaren aginte alorrean– eragina ematen zien handikiei. Kabildoetan zeukaten parte hartzearen bidez herritarren pentsamoldeetan eta moralitatean eragin zezaketen. Nolabait horrelako senideak edukitzeak familiarik indartsuenera agintaritza sendotu egiten zuen. Alfebetatu gabeko gizarte batean elizetako pulpitoa komunikabiderako eta ideiak zabaltzeko baliapide ezin hobea zen, gizartea kontrolatzeko tresna bihurtuz²⁹. Hortaz, herrietako abadeen artean oinetxe nagusietako seme ondoko hauek agertzen zaizkigu. Adibidez, Bartolomé de La Quadra Llarena jauna Lau Kontzejuetako eliz kabildoaren ordezkaria zen, eta bere anaia Nicolás Martín Muskizeko San Julián eta Sopuertako San Martín elizetako onuraduna. Batzuetan apaiz handiki hauek ez ziren herrian bizi, eta ordezkokoak izendatzen zituzten beren zereginak betetzeko. Hala ere, ez zuten tokian tokiko elizaren kontrola galtzen, beren eskubideak familiaburuaren esku uzten zituztelako. Horrela egin zuen Nicolás de La Quadra Llarenak, Muskiz eta Sopuertako elizetan zeuzkan eskubiak bere anaia eta maiorazkoaren oinordekoa zen Agustinen esku utziz³⁰.

Baina herrietako elizak kontrolatzea garrantzi handikoa bazen ere, elizaren hierarkian parte hartzea zen handikien benetako helburua. La Quadratarrek zenbait senide kargu

27. BFA, Villarías, L. 97, 1. zkia.; L. 2, 116. zkia.; L. 3, 145. zkia.

28. BFA, Villarías, L. 12, 3. zkia., 1756.

29. ATIENZA, I.: “Pater familias, Señor y Patrón...”, op. cit., 441-443 orr.

30. BFA, Villarías, L. 97, 5. zkia., 1758.

garrantzitsuetara hel zitezen lortu zuten. Pedro de La Quadra Achiga, La Quadra Llarenarren lehengusua, Burgoseko Artzapezpiku izatera heldu zen XVIII. mendearen erdialdean. Antza denez, bere senitarteko batzuek eliz kargu garrantzitsuak lortu zituzten berari esker. Esate baterako, Nicolás Martín de La Quadra Llarena Briviescako Artzediano eta "Dignidad de la Santa Iglesia Metropolitana de Burgos" izan zen sasoi berean. Eta bere anaia Bartolomé kargu berberak izan zituen Cuencako elizan³¹.

Kanpo-agintaritzan handikiek lantzen zuten beste botere-esparrua Monarkiaren administrazioa zen. Hortxe daukagu lehen aipaturiko Villariaseko Markesa zen Sebastián de La Quadra Llarena jaunaren kasua, Korteetan zeukan kargu onari esker hainbat senide sartu zituen goi-mailako administrazio karguetan, honako koadro honek erakusten duenez.

La Quadratarrek lorturiko administrazioko karguak³²

Sebastián de La Quadra Llarena	Villariaseko Markesa, <i>Caballero de la Orden de Santiago</i> eta <i>San Genaro</i> , Erregearen idazkari, <i>secretario del Depacho de Justicia y Estado</i> .
Agustín Manuel de La Quadra Mollinedo	Erregearen idazkari, <i>oficial del Despacho Universal</i> .
Manuel Antonio Las Casas y La Quadra	<i>Caballero de la Orden de Santiago</i> , Erregearen idazkari, <i>Oficial del Despacho de Estado</i> ; 1746.ean Marina Intendente Gipuzkoan.
Nicolás de Mollinedo y La Quadra	<i>Caballero de la Orden de Santiago</i> , Erregearen idazkari, <i>oficial del Despacho de Estado</i> .
Manuel de Mollinedo y La Quadra	<i>Caballero de la Orden de Santiago</i> , Erregearen idazkari, <i>oficial del Despacho de Estado</i> ; 1756. urtean <i>comisario ordenador</i> Bilbon.
Enrique de Bedia y La Quadra	<i>Teniente de las Guardias de Infantería</i>
José Agustían de Llano y La Quadra	<i>Caballero de la Orden de Santiago</i> , Erregearen idazkari, <i>oficial del Despacho</i> .
Francisco de Alcedo	Manuela de Llano y La Quadraren senarra; Armadaren diruzain.
Simón de Llano	Francisca de La Quadra Llarenaren senarra; <i>Consejo de Hacienda</i> ren kide, <i>gobernador de las aduanas de Cantabria</i> , <i>Juez subdelegado de las rentas del Tabaco</i> .

Esan dugunez, *segundón* edo ondoko hauek administrazioan eta Elizan lortzen zituzten karguotatik beren jatorrizko oinetxearen alde jokatzeko zuten ekonomia, gizarte eta politika arloetan. Badirudi administrazio eta Eliza egitura familiaren botere ekonomiko eta soziala gehitzeko baliabide zela handikientzat. Pertsonaia hauek diru-iturri berriak bideratzen zituz-

31. AHEV, San Nicolás de Bari, Pobeña, A 532, 1748; BFA, L. 12, 1. eta 3. zkiak.

32. BFA, Villarías, L. 12, 1. eta 3. zkia.; ESCUDERO, J. A.: *Los orígenes del Consejo de Ministros en España*, Madrid, 1979.

ten jatorrizko oinetxearentzat, familiaren ondarea aberasteko asmoz. Lurrak, juroak, zentsuak eta abar erosten zituzten, eta ondasun horiekin maiorazko berriak sortzen zituzten jatorrizko maiorazkoari erantsiak. Horrela egin zuen Nicolás Martín de La Quadra Llarenak 1756. urtean: "fundo mayorazgo regular con calidad de agregación al que instituyó Don Simón de La Quadra Medrano"³³. Bere anaia Sebastiánek ere Villariaseko markesadoaren ondasun ugariak erantsi zizkion familiaren jatorrizko maiorazkoari eta horiekin batera Villariaseko Markesaren titulua, harrez gero familiaburuak erabiliko zuena, hain zuzen:

"Declaro que por el amor y cariño que he tenido y tengo a la casa de mis padres y a la familia de ella y queriendo que se conserve con el lustre, lucimiento y estimación y aumento del mayorazgo La Quadra (...) quiero y es mi voluntad fundar como fundo vínculo y mayorazgo perpetuo del título de Castilla, villa de Villarias, su jurisdicción, señorío y vasallaje y de todas las casas, tierras, molinos y demás efectos (...) y este mayorazgo lo hago con las mismas cláusulas y condiciones con que le fundó el dicho Sr. Don Simón, mi padre, al que desde luego le agregó e incorporo."³⁴

Beraz, ondasun materialak ezezik, kargu, titulu eta ohore-bereizgarriak ere lortzen zituzten *segundón* hauek beren familientzat. Horrela lortu zituen La Quadratarren familiaburuak Bizkaiko eliza batzuen patronatua, hiri batzuetako *preboste* eta Bizkaiko *prestamero nagusi* karguak. Horrez gain, pertsonaia hauek etxeko alabei ezkontza onuragarriak egiten laguntzen zieten. Adibidez, Nicolás Martín de La Quadra Llarenak 600 dukateko dotea eman zion bere iloba Isabeli Andrés de Bedia Villanuevarekin ezkondu zenean³⁵. Bestalde, senidetasan harremanak eta klientelismo politikoa nahasten ziren. Hori dela eta, La Quadraterrekin ezkontzen ziren handiki batzuek kargu garrantzitsuak lortzen zituzten administrazioan, Sebastián de La Quadra Llarenaren laguntzaz baliaturik. Esaterako, Andrés Gonzalez de Sarabia, María Agustina de La Quadra Mollinedoren senarra alegia, Armadaren diruzain izendatu zuten. Francisco de Alcedok eta Simón de Llanok ere –bi-biok La Quadratarrekin ezkonduak– goimailako karguak eskuratu zituzten. Azken finean, senidetasanaren bitartez kargu garrantzitsuak lortzen ziren eta hori ere dotearen osagaietako bat zen:

"... muchas de la familia [La Quadra] han casado noble y ricamente llevando por principal parte de la dote el parentesco [con Sebastián de la Quadra Llarena]..."³⁶

Aipatu dugun horrek guztiak eragin nabarmena zeukan Enkarterrietako politika esparruan. Eliza eta korteko pertsonaia hauen inguruan babes eta zaindaritza loturak ezartzen ziren, hau da, klientelismo politikoa eta nolabaiteko fakzio politikoak eratzen ziren. Horrela Villariaseko Markesa zen Sebastián de La Quadra Llarenaren inguruan sortu zen *Enkarterrien aldeko alderdia*, Bizkaiko Jaurerriaren kontra Enkarterrietako autonomia defendatu nahi zuena. Manuel de las Casas y La Quadraren 1737.eko idazki batek lekukotasun adierazgarria ematen digu Jaurerriaren eta Enkarterrien arteko gatazkan Villariaseko Markesaren garrantzia ikusteko. Idatzi horretan Valladolideko *Chancillería* –Enkarterrien eta Jaurerriaren arteko juridikzio-gatazkek konpondu behar zituen erakundea– jo ez eta, La Quadraren bidez, Erregearengana zuzenean jotzea proposatzen zen, Villarias "bere aberri maitea" babesteko prest omen zegoen eta:

"Me parece que de acogernos a la Chancillería aunque es el camino regular lo tengo por bajo y por tan largo que cuando por él arribásemos al término sería con tanta fatiga que más de consuelo nos serviría de descalabro. Buscar la Protección Real es echar por el atajo (...). Solo se

33. BFA, Villarias, L. 12, 3. zkia., 1756; L. 7, 1. zkia., 1766.

34. Archivo Histórico Provincial de Vizcaya (AHPV), Gregorio Balparda, leg. 6423, 1213-14 orr.

35. BFA, Villarias, L. 3, 145. zkia., 1720.

36. BFA, Villarias, L. 75, 10. zkia., 1746.

descubre el tropiezo de fatigar demasiado al *Padre y Protector* de aquello nobilísima aunque perseguida república pero le veo tan hidalgamente inclinado a sus inmunidades y quietud que firmemente creo sacrificará gustoso su descanso porque logre su amada patria la Encartación (...), tanto le debemos y en tantas obligaciones nos pone su amor y autoridad.”³⁷

Izan ere, Korteon *adiskideak* izateak itzelezko garrantzia zeukan garai hartako sistema politikoa. *Adiskide-zaindari* hauek eskeini zezaketan babesa bilatzen zen tokian tokiko erakundeetatik. Horretarako ekintza sinbolikoak egiten ziren, esaterako ohorezko kargurako izendatu eta beren senideen boterea areagotu eskualdean. Sistema hori osatzen zen Bizkaian Erregeak izendatu beharreko karguak kontrolatuz, kortean zeuden senideei esker. Jaurrerriko agintariek salatzen zutenez, La Quadra familiak kontrolatzen zituen Erregearen esku zeuden Bizkaiko kargu gehienak:

“.. en el Señorío hay Corregidor del valle de Mena, confinante a Vizcaya, casado con tía de Don Simón de La Quadra, éste y aquella naturales de las Encartaciones. De la misma nación y parentela Don Francisco de Alcedo, teniente de Corregidor en Guernica, y Don Manuel de Mollinedo por Comisario de Guerra de Marina en Bilbao, Don Manuel de las Casas y La Quadra Intendente de Marina en Guipuzcoa, Don Simón de Llano Gobernador de las Aduanas de Cantabria en Vitoria, Don Simón de Bedia administrador en ellas. Tienen por Reales mercedes Arzobispo en Burgos, allí un canónigo, otro en Cuenca, un fiscal en la Chancillería de Valladolid (...) Teniendo esta parentela vinculados a su casa todos los oficios seculares de Justicia Gobierno y manejo de rentas que pertenecen a V. M. en las tres provincias exentas...”³⁸

Beraz jauntxoek boterea ez zen tokian tokikoa soilik. La Quadra familiaren kasuak erakusten duenez, Enkarterriez kanpoko beste esparru batzuetara heltzen ziren, eliza eta erresumako goi-karguetara. Azken finean, inguruotan senide boteretsu izateak familiak eskualdeko bizitza politikoa zeukan eragina sendotu egiten zuen.

5. HANDIKI ETA HERRITARREN ARTEKO HARREMANAK

Handiki eta herritarren arteko harremana ere oinetxearen estrategiaren osagaiatariko bat zen, agintea lortzeko eta legitimatzeko strategiaren barruan. Harreman horien ezaugarri nagusia zera zen: La Quadratarren etengabeko saiakera bere nagusitasun soziala herritarren artean agerian ipintzeko, eta horretarako hainbat sinboloz baliatzen ziren. Kontutan hartu behar dugu sistema politiko hartan ohore pribilegiatua eta komunitatean izandako prestigioa boterea legitimatzeko oinarrietako bat zirela. Beraz La Quadratarrek metaturiko ohore bereizgarri guztiak herritarren begi bistan ipintzen zituzten. E. P. Thompsonen hitzak erabiliz, *hegemoniaren antzerkia* dugu jokabide hori, hots, talde subalternoen obedientzia ekandua lortzeko baliapidea³⁹. Eta antzerki horretan familiak lorturiko ondare sinbolikoa antzeztuko da: etxearen gorentasunak, Monarkia eta Elizaren agintariekiko harremanak, noblezi- tituluak, karguak, eta abar.

Parrokia zenez herria batzeko lekurik garrantzitsuenetakoa, nekez aurki zitekeen leku hoberik handikien gorentasun hori antzeztu eta, nolabait esateko, sakralizatzeko. Hortik dator handikien familiakoek leinukoak lurperatzeko aparteko hilobiak izateari ematen zioten garrantzia. Testamentuetan ere argi uzten zuten jauntxoek non lurperatu behar zituzten eta hileta elizkizunak beren nagusitasun sozialaren arabera behar zutela izan.

37. BFA, Villarías, L. 75, 7. zkia.

38. BFA, Villarías, L. 71, 15. zkia.

39. THOMPSON, E. P.: "Folklore, antropología e historia social", in *Historia Social*, 3. zkia., 81-102 orr.; ITURBE, A.: "Contribución a la historia local del poder", in *Jornadas de Historia Local*, Donostia, 1988, 185-199 orr.

Elizaren esparrutik irten gabe, handikien nagusigo soziala erakusteko erritoaren barruan, kaperautzak eta familiaren kaperak aipatu behar dira. Fundazio hauen bidez, alde batetik, familia sortzaileen prestigioa handitu nahi izaten zen gizartean, eta, bestetik, familia horien eliz gizonei diru laguntza eman nahi izaten zitzaien. Kaperautza sortzen zuenak testamentuan kapital bat uzten zuten, eta diru horren interesekin urtean bere alde eta bere leinuaren alde hainbat meza ordaintzen ziren. Kaperautzaren patronatua familiaren oinordekoari zegokion eta horregatik berak izendatzen zuen kaperaua. Adibidez, Pedro de La Quadra Achigak kaperautza bat sortu zuen 1748. urtean. Kaperauak bi meza eman behar izaten zituen astero familikoan alde eta kaperautza-burua Juan Francisco de la Quadra zen, familiaren oinordekoa alegia⁴⁰. Fundazio hauek nabarmentzen ziren familiak elizan bertan leku bereziren bat zuenean. Esate baterako, Sebastián de La Quadra Llarenak muskiztarren baimena lortu zuen San Juan Bautista elizan “berarentzat, oinordekoentzat eta ostekoentzat” kapera berezi bat egiteko, bere familiaren gorentasuna zela eta: “atendiendo a su calificada nobleza y distinguidos méritos, lustre y honor de su familia”⁴¹. Horren helburua herritarren aurrean La Quadratarrek lorturiko lehentasun soziala erakustea eta beren boterea legitimatzea zen. Jokabide berdina zeukaten Enkarterrietako beste handikiek, parrokiak aukera aparta eskeintzen zielako beren nagusitasuna azaltzeko:

“Los más de los linajes tienen sus sepulturas propias en las anteiglesias de donde son originarios, y sin eso hay capillas propias de familias, que las mantienen con gran magnificencia, teniendo sus entierros para dichas familias en ellas.”⁴²

Beste aldetik, talde agintariaren herritarrenganako portaeraren beste ezaugarrietako bat paternalismoa zen. Limosna, emaitza eta karitatezko jarreraren bitartez nolabaiteko elkartasun hierarkikoa lortu nahi zuten, hots, elite eta herritarren arteko loturaren bat. Limosnak edo emaitzak, emaitzaren estatus pribilegiatua adierazten zuten. Baina aldi berean handikien boterea legitimatzeko erabiltzen zen, hartzailearen menpekotasuna ekartzen zuten eta. Handikien emaitzak hainbat erataria egiten ziren. Batzuetan parrokiek jasotzen zuten dirua eraikuntzak hobetzeko. Esaterako, La Quadra Llarena anaiek 135.000 errealetik gora gastatu zituzten Muskizeko San Juan Bautista elizaren lanetan. Beste batzuetan limosnak herriko behartsuei laguntzeko bideratzen ziren. Bartolomé de La Quadra Llarena jaunak testamentuan 2.000 erreal utzi zituen txiroen artean banatzeko. Horrez gain, *Obra Pía* bat sortu zuen baseritarren alaba behartsuak ezkondu ahal zitezen: “para que las doncellas pobres hijas de labradores puedan casar”. Bere anaia Nicolásek beste 2.000 erreal eman zituen Somorrostro haraneko txiroen artean banatzeko. Udalak berak ere josotzen zuen handikien paternalismoaren onurarik. Artzentales haranean, adibidez, Mollinedotarrek lehenengo eta geroago beren oinordekoek, La Quadratarrek, kontzejuari aurreratzen zioten dirua, interesik gabe. Batzuetan herritarrek beraiek eskatzen zioten Agustín de La Quadra Llarena jaunari herriari laguntzeko edo garai hartako hitzekin esanda “que favoreciese a esta comunidad”⁴³, eskuzabaltasuna rol agintariari zegokion egin beharrekoa baitzen. Laburbilduz, handikien estatus pribilegiatua eta beren ohore-ezaugarriak, herritarren aurrean agerian ipinitakoak, oinarrizko osagaiak ziren garai hartako aginte-sisteman.


40. AHEV, San Nicolás de Bari, Pobeña, A 532, 1748.

41. BFA, Villarías, L. 9, 14. zkia., 1741.

42. LA LINDE, L. R.: *Discursos históricos a favor de las siempre M.N. y M. L. Encartaciones del Señorío de Vizcaya*, II. alea, 117 orr., Sevilla, 1740.

43. BFA, Villarías, L. 12, 3. eta 168. zkia.; L. 97, 5. zkia.; AHEV, San Miguel de Arcentales, L. 8-II eta 8-III, 1688-1766.

LA QUADRATARRAK *



* Letra beltzez eta lauki batean oinordekoa

1. Senar-emazteen seme-alabak honako hauek izan ziren: Nicolás (Erregearen idazkari, *oficial del Despacho de Estado*); José Luis (abade, Osmako *dignidadea*, eta *Logroñoko inkisidorea*), Manuel (Erregearen idazkari eta *oficial del Despacho de Estado*), Ana eta M^a Agustina (Andrés Gonzalez de Sarabiarekin ezkondu zen eta hau Armadaren diruzain izan zen).

2. Lau seme-alaba izan zituzten: Manuel Antonio (Erregearen idazkari, *oficial del Despacho de Estado* eta Gipuzkoako *Marina Intendete*), Esteban, Ana M^a eta Agustina (Zallako handikia zen Feliciano de Urrutiarekin ezkondu zen).

3. Simón de Llano *Gobernador de las aduanas de Cantabria* eta *Juez subdelegado de las rentas del tabaco* izan zen. Senar-emazteek honako seme-alaba hauek izan zituzten: José Agustín (Erregearen idazkari eta *oficial del Despacho Universal*), Sebastián, M^a Manuela (Francisco de Alcedorekin ezkondu zen eta hau Armadaren diruzain izan zen), Francisca (Castroko Miguel de Tarancorekin ezkondu zen) eta Josefa Antonia (moja).

4. Briviescako Arzediano eta *Dignidad de la Santa Iglesia metropolitana de Burgos*.

5. *Secretario del Despacho Universal de Estado y de Justicia*, lehenengo Villariaseko Markesa.

6. Hueteko Arzediano eta *Dignidad de la Santa Iglesia de Cuenca*.

7. Francisco de Arauna Elorrioko handikia eta maiorazko batzuen jabea zen.

8. Agustín Manuel de La Quadra Mollinedo Erregearen idazkari eta *oficial del Despacho Universal* izan zen; 1739.ean hil zen seme-alabarik gabe.

9. Nicolasa de Montiano Mazarredo Bilbokoa zen eta Beitia-Oleaga maiorazkoen oinordekoa.

10. Francisco Antonio Salazar Portugaleteko *preboste*, Salazar eta Bañales oinetxeen jabe, Barakaldoko San Vicente elizaren patrono eta antzinako leinu baten oinordekoa zen: "descendiente por varonía de Ochoa de Salazar, hijo mayor de Lope García de Salazar fundador de los vínculos de este apellido".

11. Francisca Javiera de Salazar Sopuertako Manuel de Salazar y Salamancaren alaba zen. Ez zuten seme-alabarik izan.

12. María Saravia Villarcayoko Manuel Antonio de Saraviaren alaba zen eta 180.000 erreale (16.363 dukat) ekarri zuen ezkontzara. Ez zuten seme-alabarik izan.

13. Mariano Ordoñez de Barraicua Bilboko handikia eta Getxo, Ingles, Martiartu, Asua eta Barraicua maiorazkoen jabea zen.

14. Gaspar de Miranda y Bernedo Crisanto de Miranda y Artiagaren lehenseme eta oinordekoa zen: "Caballero de la Orden de Calatraba, poseedor de la Muy Ilustre Casa y Mayorazgo de su apellido de Miranda (en Calahorra), caballero del linaje de Chancilleres tercio de Alvaro Gonzalez, uno de los que compone la Muy Ilustre casa solar de los doce linajes de la ciudad de Soria". M^a Ramona de La Quadrak 16.000 dukateko dotea jaso zuen.

15. 1813.ean hil zen, ezkongabea zelarik.

16. Armadan ibili ondoren, bere anaia hil zenean familiaren maiorazko guztien oinordeko bihurtu zen. Orduan María Francisca de Sales Lardizabalekin ezkondu zen. Emaztegaia Manuel de Lardizabalen alaba zen eta hau *ministro del Supremo Consejo y Cámara de Castilla* izan zen.